

9 ELHUYAR

ABENDUA 1976

R.S.V.A.P.-en Zientzi eraskina

ZUZENDARIA: *Luis Bandres*

IDAZKARIA: *Andoni Sagarna*

ZUZENBIDEA: *Círculo de San Ignacio. - San Marcial, 26, bajo. - San Sebastián*

EUSKAL ERAKUNDE KULTURAK

Euskal Herrian, bada aspaldi samarretik lanean ari den zenbait Erakunde Kultural. Hala nola Euskaltzaindia, Ikastolak (Gipuzkoan eta Bizkaian heuren elkarteak ditzutelarik), Alfabetatze mugimendua, herrietako kultur Elkarateak, e.a.

Hala ere, Euskal Erakunde Kultural asko sortu da azken hamar urte honetan, gu geu ere berri horietakoak garelarik. Argitaldari etxeak, irratsaio, aldizkari, Udako Euskal Unibertsitatea, Unibertsitateetako E.K.T.ak, Irakasleen Elkaratea, Euskal Aste eta jaialdiak antolatzeko taldeak, eta abar eta abar, azken hamar urte honetan batik bat ari zaizkigu bizkor eta prestuki.

Erakunde Kultural guzti hauen xedea, Euskal Herriko Herrigintza eta Herriaren euskalduntzea da inondik ere. Helburu horiek gogoan izanik ari dira jo eta ke lanean.

Hala ere, eta helburuetan batasuna izan arren, badugu euskaldunok bakoitza geure aldetik "bakarlanean" aritzeko joera, eta lehen aipatutako Erakundeekin ere, horrelako zerbait gertatzen dela aitortu beharrean gara. Dena dela, hau ez da guk bakarrik dugun susmoa. "Elkarlanean" eta elkar ondo koordinaturik lan egiteko premiak eraginik, bilera garrantzitsu bat antolatua izan zen Durangon. Azken Urriaren 31ean, han bildu ginen Euskal Herri guztiko (Ipar eta Hegoaldeko, tamalez arabarrak ez bazen ere) Euskal Erakunde Kultural gehientsuenok.

Bilera honetako xehetasunak Anaitasunan (328. zenbakia) eta Z. Argian (711. zenbakia) irakur daitezkeen arren, interesgarri iruditzen zaigu Erakunde guzti hauek ikusitako behar orokorrak aztertzea.

Alde batetik, Euskal Kulturak, behar du herbesteko harremanetarako ordezkari bat. Baina, ez horretarako bakarrik. Ezinbestekoa bait derizkiogu euskaraz egiten ari den kulturaren koordinatzaeri, lan espezializatuak taldeei banatzaeri, eta abarri; Euskal Kulturaren plangintza taxutzaeri eta dinamikaren eragile izateari, bestela esan. Plangintza eta dinamika horren finantzabideak lortzeko ere, izango litzateke nahiko buruhauste.

Bestetik, gaurko Euskadin deseuskaldundurik bizi diren lurraldeak ere, ezin ditugu alde batetara utzi. Herriaren euskalduntzeak, birkonkista kultural bat (besteak beste) eskatzen bait du leku horietan. Eta horretarako, gaur egun erdaraz bizi diren bertako talde kultural jatorrak euskal ekartzea, talde euskaldun berriak sortzea e.a., gu guztion beste eginkizun bat da.

Dena dela, eta geure Heziketa eta Zientzi Ministergorik ez dugun bitartean, Euskal Erakunde Kulturalen Ordezkaritza Orokor horrek bete beharko luke gaur egun dugun zuloa.

Elhuyar-ek, bere Zientzia eta Teknika alorretik, asmo horiek gorpuzteko ahaleginak eskainiko dituela agintzen du, Herrigintzak eskatzen digun "hauzolan" honetako partaide sentitzen garenez gero.

